

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

5791

AGINDUA, 2024ko abenduaren 2koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez merezimendu-lehiaketa bat iragartzen baita Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko, 2025eko ekainaren 30ean kargua hutsik izango duten ikastetxeetan.

Agindu honen xedea da deialdi bat egitea zuzendariak hautatzeko prozedura bat egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan, baldin eta ikastetxeok Hezkuntza Sailaren mende badaude eta beren zuzendaritza-taldeak agintaldia amaitzen badute 2025eko ekainaren 30ean.

Kontuan izan behar da zer ezartzen duen arlo horretarako estatuko oinarrizko legeriak, eta bereziki Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (133. artikulua eta hurrengoak) (aurrerantzean, LOE) eta hura aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak (aurrerantzean, LOMLOE), berrikuntza garrantzitsuak ekarri baititu arlo horretan.

Bestalde, Estatuko oinarrizko araudiari dagokionez, aipatzekoa da urriaren 17ko 894/2014 Errege Dekretua, zeinak garatzen baititu zuzendaritza-eginkizunaren garapenari buruzko prestakuntza-ikastaroaren ezaugarriak, bai eta zuzendaritza-eskumenak eguneratzeko ikastaroenak ere. Hala ere, LOMLOEren 134.1.c) artikulua arabera, zuzendaria hautatzeko merezimendu-lehiaketan parte hartu ahal izateko ezinbesteko baldintza izateko, hezkuntza-administrazio bakoitzaren aukerako baldintza izatera igaro da prestakuntza hori. Kasu honetan, Hezkuntza Sailak uste du prestakuntza hori ez dela zuzendaritzarako hautagai izateko baldintza, baina bai zuzendari-lanetan aritzekoa. Horregatik, agindu honen bidez deitutako hautaketa-prozedura gainditzen dutenek zuzendaritza-eginkizuna betetzeko gaitasunei buruzko prestakuntza-programa bat gainditu beharko dute, izendatuak izan aurretik. Prestakuntza-programa horren ezaugarriak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenean daude jasota. Ebazpen horren bidez, prestakuntza-ikastaro bat iragartzen da, zuzendaritza-funtzioa betetzeko prestakuntza-programa espezifikoari buruz, Hezkuntzari buruzko otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuan ezarritakoari jarraituz (aurrerantzean, 29/2023 Dekretua).

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legeak (41. artikulua), eta, batez ere, otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuak arautzen dute zer prozedurari jarraitu zuzendariak hautatzeko eta pertsona bakarreko beste gobernu-organoak izendatzeko, eta haien kargua uzteko, Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntza-arloko eskumenak dituen sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan (29/2023 Dekretua, Hezkuntzaren arloan eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan zuzendaritza-funtzioa eskuratzeari, prestakuntza jasotzeari, hura ebaluatzeari eta aitortzeari, eta hura osatzen duten karguak uzteari buruzko).

Dekretu horretako 7. artikulua ezartzen duenez, merezimendu-lehiaketa bat egingo da zuzendariak izendatzeko, ikastetxeari esleitutako irakaskuntzaren bat ematen duten karrerako irakasle funtzionarioen artean, berdintasun-, publikotasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera. Artikulu horrek, bestalde, ezartzen du urtero deialdi bat egingo dela, merezimendu-lehiaketa bat egin, eta zuzendariak hautatzeko eta izendatzeko, eta prozesu horretan sartuko direla ikasturtearen amaieran zuzendari-kargua hutsik daukaten ikastetxeak.

Ondorioz, eta eman dizkidaten eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Deialdia.

Merezimendu-lehiaketa baterako deialdia egiten da Hezkuntza Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko, hain zuzen ere agintaldia 2025eko ekainaren 30ean amaituko duten ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen zuzendariak izendatzeko; salbu Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutukoak, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetakoak, zeinak beren araudi espezifikoaren arabera arautuko baitira.

2. artikulua.– Araubide juridikoa.

Hautaketa-prozesua LOEn xedatutakoaren arabera egingo da, eta, oinarrizko araudia urratzen ez duen orotan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko abenduaren 21eko 17/2023 Legean, 29/2023 Dekretuan eta agindu honetan ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Izangaien betekizunak.

1.– 29/2023 Dekretuaren 8. artikulua xedatzen duenaren arabera, honako baldintza hauek bete beharko dituzte irakasleek merezimendu-lehiaketan parte hartzeko:

a) Gutxienez, bost urteko antzintasuna izatea irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa.

b) Gutxienez bost urtez irakasle lanetan aritu izana, karrerako funtzionario gisa, aukeratutako ikastetxeak eskaintzen duen irakaskuntzaren batean.

c) Irakaskuntzako lanpostuetako 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea (Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailaren baliokidea da).

d) Zuzendaritza-proiektu bat aurkeztea, barnean hartuko dituen 29/2023 Dekretuko 10. artikuluan jasotako alderdiak. Zuzendaritza-proiektuaren barruan, izangaiak proposatu beharko du nork beteko duen ikasketaburuaren kargua eta nork idazkariaren kargua, bere ikastetxeko klaustruko kideen artean.

e) Ezingo da ikastetxeko zuzendaritza-proiekturik aurkeztu, baldin eta izangaiak urte sabatiko bat hartzea edo erretiroa hartzea aurreikusten badu proiektua gauzatzeko aldiari; izan ere, bi egoera horiek eragozten dute helburuak betetzeko eta proiektuan proposatutako ekintzak egiteko behar den egonkortasuna, jarraitutasuna eta konpromisoa ziurtatzea.

2.– Haur Hezkuntzako ikastetxe espezifikoetan, Lehen Hezkuntzako osatu gabeetan, zortzi unitate baino gutxiagoko Bigarren Hezkuntzakoetan, zortzi irakasle baino gutxiago dituzten helduentzako ikastetxeetan, irakaskuntza artistiko profesionalekin, kirolarekin edo hizkuntzekin lotuak daudenetan, merezimendu-lehiaketan parte hartzeko edozein irakaslek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea irakaskuntzako funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa.

b) Gutxienez urtebetez aritu izana karrerako funtzionario gisa ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetako batean.

c) Egiatztatuta izatea euskarazko C1 hizkuntza-gaitasuna, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera.

d) Zuzendaritza-proiektu bat aurkeztea, barnean hartuko dituen 29/2023 Dekretuko 10. artikuluan jasotako alderdiak. Zuzendaritza-proiektuaren barruan, izangaiak proposatu beharko du nork beteko duen ikasketaburuaren kargua eta nork idazkariaren kargua, bere ikastetxeko klaustroko kideen artean.

3.– Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean, izangaiak kasu bakoitzean bete behar dituen baldintza guztiak eduki beharko ditu.

4. artikulua.– Hautaketa-prozesuko printzipio orokorrak.

1.– Zuzendaria hautatzeko prozesuan, hezkuntza-komunitateak eta Hezkuntza Sailak parte hartuko dute.

2.– Zuzendaria hautatzeko, merezimendu-lehiaketa bat egingo da ikastetxeari esleitutako irakaskuntzaren bat ematen duten karrerako funtzionario diren irakasleen artean. Hautaketak berdintasun, publikotasun, merezimendu eta gaitasunen printzipioak izango ditu oinarri.

3.– Merezimendu-lehiaketak bi fase izango ditu. Lehen fasean, zuzendaritza-proiektua eta haren defentsa baloratuko dira. Proiektu horretan, izangaiak ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren gainean duen zuzendaritza-proposamena jasoko da. Bigarren fasean, ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaitza aurkeztu duten pertsonak alegatutako merezimenduak balioetsiko dira.

4.– Agindu honen hurrengo xedapenetan ezartzen dira zein izango diren hautaketa egiteko irizpide objektiboak eta prozedura, baldintza eta merezimendu akademikoak eta profesionalak egiaztatzeko modua, eta izangaiak akreditatutako merezimenduen eta aurkeztutako proiektuen balioespen-irizpideak.

5.– Hautaketa egiteko, ikastetxeko irakasleen hautagaitzei emango zaie lehentasuna. Ikastetxean behin betiko edo behin-behineko destinoa duen karrerako izangai funtzionarioen batek gutxieneko puntuazioa lortzen badu, hautaketa-batzordeak ez ditu balioetsiko ikastetxean destinarik ez duten izangaien zuzendaritza-proiektuak.

6.– Izangai bakoitza gehienez hiru ikastetxetan aurkeztu ahal izango da.

7.– Hautaketa-batzordeko kideek hautatuko dute zuzendaria, era kolegiatuan, agindu honetan ezarritako irizpideen arabera. Horretarako, kontuan hartuko dituzte zuzendaritza-proiektuaren eta haren defentsaren balioespena eta izangaiak egiaztatutako ikasketa-, prestakuntza- eta lanbide-merezimenduen balioespen objektiboak.

Aurkeztutako proiektuak barnean hartu beharko ditu, besteak beste, emakumeen eta gizonen berdintasunari, diskriminaziorik ezari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko edukiak, bai eta hizkuntza-normalizazioari buruzkoak ere.

8.– Hautaketa-prozesua gainditu dutenek, izendatu aurretik, egiaztatu beharko dute zuzendaritza-funtzioa betetzeko konpetentziei buruzko prestakuntza-programa espezifikoan jasotako prestakuntza dutela. Programa hori Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenean jasota dago.

9.– Hautagaitzarik ez dagoenean, ikastetxe berriak direnean edo dagokion batzordeak pertsona bakar bat ere aukeratu ez duenean, dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaririk, Eskola Kontseiluari entzun eta Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren, irakasle funtzionario bat izendatuko du zuzendari, ikasturte baterako, ezohiko izaeraz.

10.– Ezohiko izaeraz izendatutako zuzendariak zuzendaritza-eginkizunaren garapenari buruzko prestakuntza-programa gainditu beharko du, izendapenaren lehenengo urtea amaitu baino lehen. Gainera, lidergoarekin lotutako helburu bat sartuko du gutxienez, 2025-2026 ikasturteko urteko planean, eta helburu hori jarduketa-plan gisa baloratuko da urteko memorian.

5. artikulua.– Hautaketa-prozesuaren garapena.

Hautaketa-prozesua agindu honen I. eranskinean ezarritako egutegiaren eta prozeduraren arabera egingo da.

6. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

Eskabidean, dokumentazio hau jasoko da:

a) Zuzendariak hautatzeko prozesuan onartzeko eskabidea, II. eranskinean jasotako ereduaren arabera (interesdunak online inprimakia beteko du Hezigunea atarian sartu ondoren). Eskabide horretan, zehaztu beharko da zer ikastetxetan aurkeztu den hautagaitza, zer proposatzen duten zuzendaritza-proiektuan zuzendaritza-taldeko beste kideek (ikasketaburuak eta idazkariak), eskabidea aurkeztu den ikastetxe bakoitzerako, eta zer merezimendu alegatzen diren prozedurako bigarren faserako. Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunera bitarte burutu diren alegatutako merezimenduak bakarrik barematuko dira. Eskatzaileek merezimenduen lehiaketaren bigarren faseko baremoko merezimenduak justifikatzeko aurkeztu behar dituzten dokumentuak agindu honen IV. eranskinean daude jasota.

b) Zuzendaritza-proiektuaren ale bat, aukeratu den ikastetxeko. Proiektua III. eranskinean xedatutakoaren arabera egin beharko da. Aurkeztutako zuzendaritza-proiektuaren barruan, izangaiak zuzendaritza-taldeko kideak proposatu beharko ditu, ikastetxeko langileen artean aukeratuta.

c) Zuzendaritza-taldeko kideak zerbitzu-eginkizunetan izendatzeko proposamen arrazoitua. Dokumentazio hori soilik aurkeztuko da beharrezkoa denean.

d) Eskabide-eredua, PEFI_EFD prestakuntza-programako jardura jakin batzuk egitetik eta ebaluatzetik salbuesteko, V. eranskineko ereduaren arabera.

e) Eskabide horrekin batera, eskatzaileak zenbait dokumentu aurkeztu beharko ditu, eskaneatuta, agindu honen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko, baldin eta dagoeneko Hezkuntza Sailaren esku ez badago. Modu berean jokatuko da alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioarekin.

7. artikulua.– Deitutako ikastetxeak.

Agindu honen VI. eranskinean zehaztutako ikastetxeetan deitzen da prozesua. Prozesuaren garapenaren uneren batean, eta zuzendaria izendatu aurretik, deitutako ikastetxeren bat ikastetxe integratu edo Lanbide Heziketako ikastetxe bihurtzen bada, ikastetxe hori zuzendariaren hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da, eta ondorioz gabe geratuko dira ordura arte egindako izapide guztiak.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Salbuespenezko egoerak, ikasketaburutza eta idazkaritzak izendatzeko zerbitzu eginkizunetan.

Salbuespenezko kasu hauetan, ikastetxeko zuzendariak proposamen arrazoitua egin ahal izango du ikasketaburua edo idazkaria zerbitzu-eginkizunetan izendatzeko:

– Ikasketaburu- edo idazkari-kargurako proposatzen den pertsona karrerako funtzionarioa denean.

– Karrerako irakasle funtzionarioen ehunekoa % 20koa edo txikiagoa denean (edo 6 irakasle edo gutxiagokoa, % 20a 6 baino gutxiago bada), izangaiak klaustroko bitarteko funtzionarioak proposatu ahal izango ditu ikasketaburutzako eta/edo idazkaritzako karguak betetzeko.

Ehuneko hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da karrerako funtzionario diren irakasleen artean zenbat diren lanaldi osoko eta murrizketarik gabekoak, ikastetxearen hasierako lanpostu-zerrenda (LPZ) osatzen duten irakasle guztiekin alderatuta.

Izangaiak egoera hori jaso beharko du agindu honen I. eranskineko 1.3 atalean jasotako eskaeran. Horretarako, izangaiak txosten xehatua erantsiko dio eskabideari. Txosten horretan, bere klaustroko irakasleen zerrenda jasoko du, eta, irakasle horien artean, aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituztenen zerrenda.

Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetako langileak kudeatzeko zerbitzuek ikasketaburu eta idazkari izateko proposatutako pertsonen datuak baliozkotuko dituzte. Izangaiari behin-behineko baliozkotze horren emaitzaren berri emango zaio, agindu honen I. eranskineko 2.2 apartatuan jasotako eskabidea onartzeari edo ezesteari buruzko behin-behineko ebazpenaren bidez.

Baliozkotzea negatiboa bada, izangaiak bere zuzendaritza-taldeko kideen proposamena aldatu ahal izango du ebazpen horren erreklamazio-aldian. Bere proposamenean ezer aldatuz gero edo proposamen berria baliozkotzen ez bada, zerbitzu-eginkizunaren eskaera ezetsi egingo da. Izangaiari behin-behineko baliozkotze horren emaitzaren berri emango zaio, agindu honen I. eranskineko 2.4 apartatuan jasotako eskabidea onartzeari edo ezesteari buruzko behin-behineko ebazpenaren bidez.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Ondorioak.

Agindu honek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 2a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

I. ERANSKINA

HAUTAKETA-PROZESUAREN EGUTEGIA ETA PROZEDURA

1.– Eskabideak aurkeztea. Eskabidea telematikoki aurkeztea, epeak eta dokumentazioa.

1.1.– Eskabideak aurkezteko, eta deialdi hau arautzen duen dokumentazioa izapidetzeko atari gisa, hau izango da webgunea: <https://hezigunea.euskadi.eus/> (aurrerantzean, Hezigunea). Prozedura honetan parte hartzeko, izangaiek aipatutako atariaren bidez egin beharko dute eskabidea. Bertan, gehienez ere, 3 ikastetxe eskatu ahal izango dituzte, lehenetsun-ordenaren arabera hautatu ere, agindu honen VI. eranskinean zerrendatzen direnetatik.

1.2.– Hezigunea atarira sartzeko, beharrezkoa izango da alde zuzenetik eskatzailea identifikatzea (NAN/AIZ + pasahitza, edo XLNets erabiltzailea, lehendik izanez gero). Eskabidea betetzeko, «Zuzendariak hautatzea» bannerrera sartu behar da, eta sistemak identifikazio-zenbaki bat sortuko du, prozedurari balioa eta bakartasuna emango diona.

Hainbat arrazoi direla medio, izangaiek parte hartzeko eskabide telematiko bat baino gehiago aurkezten badute, aurkeztutako azken eskabidea bakarrik hartuko da kontuan; hots, parte-hartzaile bakoitzeko eskabide telematiko bakarra baino ez da onartuko.

Ez dira kontuan hartuko bide horretatik aurkeztutako eskabideak, baldin eta ezarritako aurkezpen-prozesua osatzen ez badute. Prozesu horretatik, eskabide-zenbaki bat lortuko da pdf formatuan deskargatu daitekeen dokumentu batean, eta interesdunak gorde egin beharko du epean eta behar bezala aurkeztu izana egiaztatzeko.

1.3.– Eskabidean, 6. artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso behar da.

1.4.– VI. eranskinean jasotako ikastetxeek, agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera emango diete ikastetxearen dokumentuak kontsultatzeko, hala eskatzen dutenei; batez ere honako hauek: hezkuntza-proiektua, antolamendu- eta funtzionamendu-araudia eta datu pertsonalik ez duten urteko planeko elementuak. Horretarako, espazio eta ordutegi bat prestatuko dute, oztoporik jarriko ez diona ikastetxeko jardueren garapen normalari. Kasu guztietan, ikastetxetako idazkaritzak zainduko du ea kontsulta-prozesu horrek betetzen duen datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudia.

1.5.– Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 13tik 24ra bitartekoa izango da, biak barne.

2.– Izangaiek onartzea.

2.1.– Informazioa eskatzea, izangaiek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko.

2025eko urtarrilaren 27tik 28ra bitartean, biak barne, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako lurralde-zerbitzuei eskatuko diete, batetik, egiaztatzeko ea izangai guztiek betetzen dituzten agindu honen 3. artikuluan ezarritako eta prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak, eta bestetik, izangaiek ikasketaburua eta/edo idazkaria zerbitzu-eginkizunetan izendatzeko proposamen arrazoitua egin duten kasuetan, baliozkotzeko ea betetzen diren agindu honen lehen xedapen gehigarrian (zerbitzu-eginkizun hori arautzen duena) jasotako egoerak.

Baldintzak egiaztatzeko, Lehen Hezkuntzako ikastetxe osatugabetzat hartuko da lehen hezkuntzako etapako maila bakoitzeko gutxienez unitate bat ez duena.

Hezkuntzako lurralde-ordezkariek zer datu eskatu, datu horiek eman beharko dituzte Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako lurralde-zerbitzuek. Datu horiek emateko epea 2025eko urtarrilaren 29an amaituko da.

2.2.– Behin-behineko ebazpenak, eskabideak onartzeari ala ezesteari buruzkoak eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzarena, Berriazko Prestakuntza Programako zenbait jarduera egitetik eta ebaluatzetik salbuesteari buruzkoa, zuzendaritza-eginkizunean has-teko (PEFI_EFD).

Dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, eman zaizkion datuak kontuan hartuta, behin-behineko ebazpenak emango ditu aurkeztutako eskabideak onartzeko ala ezesteko. Ebazpen horiek emateko epea 2025eko urtarrilaren 30ean amaituko da. Ebazpenetan zehaztuko da izangaiak zer ikastetxetan onartu diren, eta, baztertuak izan badira, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

Ebazpen horretan bertan, proposamen arrazoitu bat egin badu izangaiak ikasketaburu eta/edo idazkari zerbitzu-eginkizunetan izendatzeko, jaso beharko da zer emaitza lortu den proposamen horren behin-behineko baliozkotzean, agindu honen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Egun berean, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak behin-behinean ebatziko ditu izangaiak PEFI_EFD prestakuntza-programako prestakuntza-jarduera jakin batzuk egitetik eta ebaluatzetik salbuesteari buruz egin dituzten eskaerak, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenak ezarritakoari jarraituz.

Ebazpen horiek Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko dira:

– Prozesuan onartutako hautagaitzen behin-behineko ebazpenerako: «Irakaskuntzak eta ikastetxeak» lan-arloaren barruan – «Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen antolamendua. Gobernu-organoak» – «Ikastetxe publikoak» – «Zuzendarien hautaketa-prozesuaren deialdia».

– Izangaiak PEFI_EFD prestakuntza-programako prestakuntza-jarduera jakin batzuk egitetik eta ebaluatzetik salbuesteari buruz egin ahal izan dituzten eskaerak behin-behinean ebatzeko: «Hezkuntza-berrikuntza» lan-arloaren barruan – «Jarduera-eremuak» – «Zuzendaritzen prestakuntza».

Haiek ere Hezigunea atarian argitaratuko dira.

Argitalpen horiekin, egintzat joko dira interesdunei egin beharreko jakinarazpenak.

Bermatzeko hezkuntza-komunitateak zuzendaritzarako hautagaitzak ezagutu ahal izango dituela, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek bakoitzak dagokion ebazpena jakinaraziko dio eragindako ikastetxe bakoitzeko zuzendariari, argitaratu dadin ikastetxeko iragarki-taulan.

2.3.– Behin-behineko ebazpenei erreklamazioak, eta zuzendaritza-proiektua edo -proiektuak eransteke gehieneko epea.

Aurreko ebazpenen aurka, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariei edo, hala badagokio, Ikaskuntzako eta Hezkuntza Berrikuntzako zuzendariari. Erreklamazio horiek Hezigunea atariaren bidez egingo dira, eta aurkezteko epea 2025eko otsailaren 6an amaituko da, egun hori barne.

Hala ere, zuzendaritza-proiektua aurreko puntuan ezarritako epean aurkezten ez bada, ez da zuzenduko, eta prozeduratik kanpo geratuko da.

2.4.– Eskabideak onartzeari eta ez onartzeari buruzko behin betiko ebazpenak, eta Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren behin betiko ebazpena, zuzendaritza-eginkizunean hasteko Berariazko Prestakuntza Programako zenbait jarduera egitetik eta ebaluatzetik salbuesteari buruzkoa (PEFI_EFD).

Dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak, eta prozeduran parte hartzeko eskabideak onartzeko edo ez onartzeko behin betiko ebazpenak emango ditu.

Ebazpen horiek emateko epea 2025eko otsailaren 13an amaituko da.

Ebazpen horietan zehaztuko da izangaiak zer ikastetxetan onartu diren, eta, baztertuak izan badira, baztertzeko arrazoiak ere adieraziko dira.

Ebazpen horretan bertan, proposamen arrazoitu bat egin badu izangaiak ikasketaburutzako eta/edo idazkaritzako zerbitzu-eginkizunetan izendatzeko, jasoko beharko da zer emaitza lortu den proposamen horren behin betiko baliozkotzean, agindu honen lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

Egun berean, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak behin betiko ebatziko ditu izangaiak PEFI_EFD prestakuntza-programako prestakuntza-jarduera jakin batzuk egitetik eta ebaluatzetik salbuesteari buruz egin dituzten eskaerak.

Ebazpenak behin-behineko ebazpenen antzera argitaratuko dira.

Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi aitortzen zaionik agindu honen 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela. Prozesuaren edozein unetan, lortu nahi duen karguaren baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko balio duen dokumentazioa eskatu ahal izango zaio. Berrikuspenetik ondorioztatzen bada izangairen batek ez duela betetzen baldintzaren bat, interesdunari entzun ondoren, galdu egingo ditu hautaketa-prozesuan parte hartzeagatik izan ditzakeen eskubide guztiak.

Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du esan nahi aitortzen zaienik PEFI_EFD prestakuntza-programa gainditu izanaren ziurtagiria izatea.

2.5.– Onartutako izangaitzak eta aurkeztutako proiektuak jakinaraztea eragindako ikastetxetako hezkuntza-komunitateei.

Bermatzeko hezkuntza-komunitateak ezagutu ahal izango dituela aurkeztutako proiektuak eta zuzendaritzarako hautagaitzak, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek dagokion ebazpena jakinaraziko diote eragindako ikastetxe bakoitzeko zuzendariari, argitara eman dadin dagokion ikastetxeko iragarki-taulan. Aldi berean, ikastetxeari dagokion zuzendaritza-proiektuaren edo -proiektuen ale bana bidaliko die Hezkuntzako lurralde-ordezkariek ikastetxe bakoitzari, 2025eko otsailaren 20ra arteko epean. Epe hori amaituta, eta hezkuntza-komunitateak proiektu horietarako sarbidea izango duela bermatzeko, ikastetxeko zuzendaritzak 24 orduko epean jakinaraziko du zer espazio fisiko edo birtualetan egongo diren eskuragarri dokumentu horiek.

2.6.– Hautagaitzarik aurkeztu ez den edo onartu ez den ikastetxeetan esku hartzea.

2025eko otsailaren 24tik aurrera, Hezkuntza Ikuskaritza agindu honen 4.9 artikuluan aipatzen diren nahitaezko txostenak egiten hasiko da, zuzendaria izendatzeko, izangai-zerrendarik aurkeztu ez den edo onartu ez den ikastetxeetan. Txosten horiek amaituta beharko dute 2025eko apirilaren 30a baino lehen.

Eskola Kontseiluari entzun ondoren, ikuskaritzaren nahitaezko txostenak, besteak beste, zuzendaritzaren egoera eta ikastetxean egindako esku-hartzea jasoko ditu, zuzendariei hezkuntza-lidergo egonkorra lortzen laguntzeko.

3.– Hautaketa-batzordeak.

3.1.– Hautaketa-batzorde bat eratuko da hautaketa-prozesua egin behar den eta gutxienez hautagaitza bat onartu den ikastetxe bakoitzean.

3.2.– Hautaketa-batzordeetako kideak.

Ikastetxe bakoitzeko hautaketa-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Hezkuntzako ikuskari bat. Ikuskari nagusiak proposatuko duena, eta batzordeko lehendakari gisa jardungo duena.

b) Lau kide, ikastetxearen ordezkari:

I) Bi kide irakasleak izango dira, klaustroak horretarako egindako ezohiko bilkuran aukeratuak. Kiderik gazteenak idazkari gisa jardungo du.

II) Eskola Kontseiluko kideek beste bi kide aukeratuak dituzte, irakasle ez diren Kontseiluko kideen artean, lehendakariak horretarako deitutako bilkuran.

c) Zuzendari bat, bokal gisa, hezkuntza-administrazioaren ordezkarietan, honako baldintza hauek betetzen dituena:

I) Zuzendaria jardunean izatea, hautaketa-prozedura garatzen den ikastetxearen irakaskuntza berdinak ematen dituen ikastetxeren batean, edo, hala badagokio, antzeko ezaugarriak dituen ikastetxeren batean.

II) Zuzendariak egindako lanaren ebaluazio positiboa izatea ekitaldi batean edo gehiagotan. Hori ziurtatu ezin den kasuetan, beren eginkizunak betetzean gutxienez hiru urteko ezohiko izendapena duten zuzendariak izendatuko dira.

3.3.– Hautaketa-batzorde hori, kide anitzeko organo gisa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 16. artikulutik 18. artikulura xedatutakoak arautuko du, eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritako abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak aplikatuko zaizkie batzordekideei. Erabakiak hartzean berdinketarik badago, ikuskariak ebatziko ditu, kalitatezko botoarekin.

3.4.– Izangaien hizkuntza-eskubideak errespetatzeko eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoa betetzeko, bermatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen nahikoa ezagutza duten kide nahikoa egongo dela hautaketa-batzordeko kideen artean. Baldintza hori hautaketa-batzordeko kide guztiek bete beharko dute, Eskola Kontseiluko ordezkariak izan ezik, haientzat gomendio bat izango baita.

3.5.– Batzorde horien osaerak, ahal den heinean, emakume eta gizonen ordezkariak orekatu izango du, Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikulua (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatua) arautzen duenaren arabera.

3.6.– Hautaketa-batzordeen eginkizunak.

Hautaketa-batzordeak honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Ikastetxeko zuzendaritza aukeratzeko prozesua egiteko prozedurak antolatu eta garatzea.
- b) Dagozkion prozedurak gauzatzeko egutegia ezartzea eta argitaratzea, agindu honetan ezarritako epeen arabera.
- c) Izangaiei deialdia egitea zuzendaritza-proiektua ahoz defenda dezaten.
- d) Izangaiek aurkeztutako zuzendaritza-proiektuak era arrazoituan balioestea.
- e) Izangaiek aurkeztutako merezimendu akademikoak, prestakuntzakoak eta profesionalak barematzea.
- f) Erreklamazioak ebaztea, beren eskumenen esparruan.
- g) Onartu eta argitara ematea zuzendaritza-proiektuari emandako kalifikazioa eta, hala badagokio, izangaiek merezimendu-baremoan eskuratutako behin-behineko puntuazioa ere bai.
- h) Aurkeztutako izangaien behin betiko zerrenda onartu eta argitaratzea, apartatu bakoitzean lortutako puntuazioa zehaztuta.
- i) Amaierako guztizko puntuazio handiena eskuratu duen ikastetxe bakoitzeko izangaia aukeratzea.
- j) Dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari helaraztea aukeratutako pertsonaren izena, ikastetxeko zuzendari izendatzeko proposamenarekin batera.
- k) Dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzan entregatzea aurkeztutako dokumentazioa eta hautaketa-prozesutik eratorritakoa, izangaia aukeratu ondoren.

3.7.– Beren eginkizunak betetze aldera, hautaketa-batzordeek behar duten informazioa bildu ahal izango dute Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetatik, izangaiei bidezko dokumentazioa eskatu ahal izango diete, eta, halaber, ikastetxean eskuragarri dauden baliabide eta bitarteko telematikoak erabili ahal izango dituzte hezkuntza-komunitateari zuzendaritza arduratuko den pertsonaren hautaketa-prozesuari buruzko alderdi guztiak jakinarazteko eta beren eskumenetatik eratorritako ekintza guztiak deialdian zehaztutako epeetara egokitzeko.

3.8.– Hautaketa-batzordean klaustroa eta Eskola Kontseilua ordezkatuko dituzten pertsonak aukeratzea.

2025eko otsailaren 24tik martxoaren 4ra bitartean, biak barne, zuzendariak deialdia egingo du klaustroaren ezohiko bilkura bat egiteko; ondoren, beste deialdi bat egingo du Eskola Kontseiluaren beste bilkura bat egiteko, onartutako hautagaitzen berri eta dagozkien zuzendaritza-proiektuen berri emateko, dagozkien aktak eman ditzaten (ikus VII. eta VIII. eranskinak).

Deialdi horretan, ikastetxeko zuzendaritzak jakinarazi beharko du zer espazio fisiko edo birtualetan egongo den eskuragarri izangai bakoitzak aurkeztutako zuzendaritza-proiektua, kide anitzeko organo horietako kideek kontsultatu ahal izan ditzaten. Bilkura horretan, bi organoei dagozkien bokalak eta bokal bakoitzeko ordezko bat aukeratzeko dira, zeinak hautaketa-batzordeko kide izango baitira.

Eskola Kontseiluaren ezohiko bileraren kasuan, ez zaie deialdia egingo irakasleen klaustroko ordezkariei.

Klaustroaren zein Eskola Kontseiluaren buru ikastetxeko zuzendaria edo haren ordezkoa izango da, irizpide hauek aplikatuz:

– Beren ikastetxeko zuzendaritza aukeratzeko merezimendu-lehiaketara aurkezten diren jarduneko zuzendariak ezin izango dituzte bete hautaketa-prozesuan ikastetxeko zuzendariari esleitutako eginkizunak. Eginkizun horiek ikastetxeko zuzendariordeak eta/edo zuzendaritzako ondokoak beteko ditu, edo, ondoren, ikasketaburuak, ikasketaburuaren ondokoak, ikastetxeko idazkariak edo idazkariaren ondokoak, baldin eta dagokion pertsonak ere bere hautagaitza aurkeztu ez badu, betiere.

– Baldin eta arestian aipatutako karguak betetzen dituzten pertsona guztiek ere hautagaitza aurkeztu badute ikastetxeko zuzendari izateko, irakaskuntza-sektoreko kide ordezkari zaharrena izango da kide anitzeko organoaren buru.

a) Nola hautatu nork ordezkatu duen klaustroa hautaketa-batzordean:

Hautaketa-batzordean klaustroa ordezkatu duenak aukeratzeko, isilpeko bozketa egingo da, eta, bertan, boto-eskubidea duen pertsona bakoitzak pertsona bati eman ahal izango dio botoa. Izen bat baino gehiago duten botoak baliogabeak izango dira. Ikastetxeko zuzendaritzarako hautagaitza aurkeztu duten irakasleek ezohiko klaustro horretan egoteko, parte hartzeko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Zuzendaritza-taldeko kide gisa aurkeztutako zuzendaritza-proiektuetan agertzen diren pertsonekin ere berdin jokatu da.

Boto baliodun gehien lortzen dituzten bi pertsonak aukeratu dira. Berdinketa badago, bigarren bozketa bat egingo da, eta, behar izanez gero, hirugarren bat. Bozketa horietan, berdinduta geratu direnei baino ezingo izango zaie botoa eman. Hirugarren bozketa egin ostean, berdinketak bere horretan badarrai, zozketa publikoa egingo da.

Klaustroaren bi ordezkariak aukeratu ondoren, ordezkoen zerrenda osatuko da. Botoren bat jaso duten pertsonak osatuko dute zerrenda hori, boto gehien jaso duenetik hasi eta boto gutxien jaso duenera ordenatuta. Ordezkoen zerrendan berdinketarik badago, zozketa publiko bidez erabakiko dira.

b) Hautatzea nork ordezkatu duen Eskola Kontseilua hautaketa-batzordean:

Eskola Kontseiluan ikasleen ordezkariak duten ikastetxeetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren kurtsoetik gorako ikasleei baino ez zaie deialdia egingo bilkura horretara joateko. Klaustro ordezkariari ere ez zaie deialdirik egingo bilkura horretara joateko.

Eskola Kontseiluaren ordezkariak aukeratzeko, bozketa bat egingo da, eta, bertan, pertsona bakar bati eman ahal izango diote botoa Eskola Kontseiluko kideek. Izen bat baino gehiago duten botoak baliogabeak izango dira. Boto baliodun gehien lortzen dituzten bi pertsonak aukeratu dira. Berdinketarik badago, bigarren bozketa bat egingo da, eta, behar izanez gero, hirugarren bat. Bozketa horietan, berdinduta geratu direnei baino ezingo izango zaie botoa eman. Hirugarren bozketa egin ostean, berdinketak bere horretan badarrai, zozketa publikoa egingo da.

Eskola Kontseiluaren bi ordezkariak aukeratu ondoren, ordezkoen zerrenda osatuko da. Botoren bat jaso duten pertsonak osatuko dute zerrenda hori, boto gehien jaso duenetik hasi eta boto gutxien jaso duenera ordenatuta. Ordezkoen zerrendan berdinketa badago, zozketa publiko bidez erabakiko dira.

Botoa zuzena eta isilpekoa izango da, eta ezingo da eskuordetu.

Irakasle-klaustroak edo Eskola Kontseiluak hautaketa-batzordean izango dituzten ordezkariak aukeratu edo izendatu ez izanak ez du eragotziko haiek eratzea.

2025eko martxoaren 6an, ikastetxeko zuzendariak edo, apartatu honetan ezarritakoa aplikatuz, haren ordezekoak dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariari igorriko dio aipatutako partaidetza-organo bakoitzaren bilkuraren aktaren kopia, Hezigunea aplikazioaren bidez («Nire egunerokoa» apartatua. Ikastetxeko Hezkuntza Ikuskaritzaren informazioa. Dokumentuak). Ikus VII. eranskina, klaustroaren akta-eredua, eta VIII. eranskina, Eskola Kontseiluaren akta-eredua.

3.9.– Izendatzea zer ordezkari izango dituen Hezkuntza-administrazioak hautaketa-batzordeetan.

Hezkuntza ikuskari nagusiak dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariari proposatuko dio Hezkuntzako ikuskari izango diren hautaketa-batzordeetako lehendakari (izen-abizen eta guzti). Proposamen horiek egiteko epea 2025eko martxoaren 3an amaituko da.

Era berean, dagokion hezkuntza-ordezkariak zuzendari-talde bat izendatuko du hautaketa-batzordeetan parte hartzeko, eranskin honetako 3.2.c) apartatuan jasotzen den bezala.

Pertsona horiek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak behar bezala ezagutzen dituztela bermatzeko moduan egingo dira proposamen eta izendapen horiek.

3.10.– Hautaketa-batzordeetako kideak izendatzea.

Hezkuntzako lurralde-ordezkariak izendatuko dituzte dagokion lurralde historikoan eratu behar diren hautaketa-batzordeetako kide guztiak. Izendapen horiek egiteko epea 2025eko martxoaren 10ean amaituko da.

Dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariak hautagaitza bat baino gehiago onartu den ikastetxeetako batzorde bakoitzeko burutzari emango dizkio hautagaitza onartu zaion pertsona bakoitzaren lehiaketako bigarren faseko merezimenduak egiaztatzeari buruzko datuak. Datu eta dokumentu horiek emateko epea 2025eko martxoaren 11n amaituko da.

3.11.– Hautaketa-batzordeen funtzionamendua.

Hautaketa-batzordeen egoitza ofiziala zentro berean egongo da, edo, hala badagokio, horretarako ezarritako beste administrazio-bulego batzuetan, egoerak hala gomendatzen badu eta prozeduran interesa duten pertsonen inolako kalterik eragiten ez bazaie, eta horiek eratzeko prozedura amaitzen denean amaituko da haien jarduna.

Hautaketa-batzordearen eraketa eta funtzionamendua baliozkoa izan dadin, ezinbestekoa izango da bertan egotea kideen erdia gehi bat, baldin eta haien artean batzordeburua eta idazkaria badaude. Erabakiak gehiengoz hartuko dira.

4.– Hautaketa-prozesuaren lehenengo fasea.

Lehenengo fasean, zuzendaritza-proiektua balioetsiko da, zeinetan jasoko baitira, ikastetxeko hezkuntza-proiektuarekin lotuta, izangaiaren helburuak eta jardun-ildoak. Zuzendaritza-proiektuak ikasle guztien eskola-arrakasta lortzea izan beharko du helburu, eta, besteak beste, hezkuntza-inklusioari, gizonen eta emakumeen berdintasunari eta diskriminaziorik ezari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzko edukiak jaso beharko ditu, baita hizkuntza-normalizazioari buruzko edukiak ere.

4.1.– Zuzendaritza-proiektuak klaustroari eta Eskola Kontseiluari aurkeztea.

Eranskin honetako 3.8 apartatuan aipatutako irakasle-klaustroko ezohiko bilkura berean, izangai bakoitzak bere zuzendaritza-proiektua aurkeztu ahal izango du, eta horri buruz egiten zaizkien galderei erantzungo die. Jarraian, akta egingo da, eta, hor, egindako esku-hartzeak jasoko dira (VII. eranskina).

Era berean, eranskin honetako 3.8 apartatuan jasotako Eskola Kontseiluaren ezohiko bilkuran, izangaiek beren proiektua azalduko dute, eta egiten zaizkien galderei erantzungo. Jarraian, akta egingo da, eta, hori, egindako esku-hartzeak jasoko dira (ikus VIII. eranskina).

Klaustroaren eta Eskola Kontseiluaren ezohiko bilkuretako buruak zuzendaritza-proiektuak helaraziko dizkie hautatutako ordezkari, bileran bertan.

4.2.– Hautaketa-batzordeak zuzendaritza-proiektua balioestea.

Hautaketa-batzordeak balioetsiko du, lehenik eta behin, 2024-2025 ikasturtean hautagaitza aurkeztu duten ikastetxean destinoa duten izangaien zuzendaritza-proiektua. Hautagaitzarik ez badago edo pertsona horietako batek ere ez badu prozeduraren lehenengo fasea gainditzen, hautaketa-batzordeak destinoa beste ikastetxe batean duten izangaien proiektuak balioetsiko ditu.

Bilkura berean, hautaketa-batzordea eratuko da, eta izangaiek aurkeztutako eta defendatutako zuzendaritza-proiektuak balioetsiko dira, agindu honen III. eranskinean jasotako ebaluazio-irizpideak aplikatuz. Lan hori egiteko epea martxoaren 17tik 21era bitartekoa izango da, egun biak barne.

Apartatu honetan aipatutako zuzendaritza-proiektua aurkeztu ez bada edo frogatzen bada osorik edo zati batean plagiatu dela, 0 puntu emango zaizkio.

Hautaketa-batzorde bakoitzak, alfabetikoki, ikastetxeko zuzendaritzarako izangaiak zitatu ditu, zuzendaritza-proiektua azaldu eta defendatzeko. Zitazioa bakarra izango da izangai guztientzat, eta ikastetxeko iragarki-taulan eta web-orrian argitaratuko da, gutxienez 48 ordu lehenago, izangaiak non, noiz eta zer ordutan aurkeztu behar diren adierazita.

Izangaiek beren burua identifikatu beharko dute hautaketa-batzordearen aurrean, beren nortasuna egiaztatzen duen agiria aurkeztuz: nortasun-agiri nazionala edo pasaporte eta, hala badagokio, atzeritarraren nortasun-txartela.

Ekitaldi horretan agertzen ez diren izangaiak prozeduratik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako eta hautaketa-batzordeak aintzat hartutako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Alegatutako arrazoia baiesten bada, presidenteak beste egun eta ordu bat ezarriko du eragindako izangaiaren bigarren eta azken deialdirako, eta batzordearen egoitzako iragarki-taulan eta ikastetxearen webgunean argitaratuko du.

Izangaiak gehienez 30 minutu izango ditu proiektuaren ezaugarri garrantzitsuenak azaltzeko. Ondoren, eta gehienez 15 minutuz, izangaiak proiektua defendatuko du, galderei erantzunez eta batzordeko kideek eskatzen dizkieten argibideak emanez.

Zuzendari izateko izangaiek azaldu eta defendatuko dute zuzendaritza-proiektua. Zuzendaritza-taldeko beste kargu batzuetarako proposatutako pertsonak ere parte har dezakete ekitaldian.

Ahozko azalpena egiteko, izangaiari ordenagailu bat eta proiektagailu bat utziko zaizkio, eta Interneteko konexioa jarriko zaio. Bere aldetik, izangaiak aukera izango du egokitzen jotzen duen material osagarria erabiltzeko.

Hautaketa-batzordeko kide bakoitzak balioetsiko du zuzendaritza-proiektua, 0 eta 70 puntu artean emanez. Kide bakoitzak emandako puntuazioak zenbaki oso bat izan beharko du. Batzordeko kide bakoitzak emandako puntuazioaren batezbesteko aritmetikoa atzemanen lortuko da proiektuaren puntuazioa. Hala ere, proiektu horren guztizko kalifikazioan batzordekideek emandako puntuazioen artean 15 puntu oso edo gehiagoko aldea badago, gehieneko eta gutxieneko kalifikazioak baztertu egingo dira, eta puntuazioak baztertzen jarraituko da harik eta alde hori desagertu arte. Azkenik, gainerako kalifikazioen batez besteko puntuazioa kalkulatu da.

Lehenengo fase honetan, izangaiek, gutxienez, 35 puntu lortu beharko dituzte. Gutxieneko puntuaziora iristen ez diren izangaiek hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira.

Beraz, zuzendaritza-proiektuak kalifikatu ondoren haietako bakarra balioesten bada gutxienez 35 punturekin, izangaia hautagai hautatu gisa proposatuko da. Zuzendaritza-proiektu batek baino gehiagok lortzen badute 35 puntu edo gehiagoko kalifikazioa, kasuan kasuko izangaien merezimenduak barematuko dira prozeduraren bigarren fasean.

5.– Hautaketa-prozesuaren bigarren fasea.

Zuzendaritza-proiektuaren balioespena amaitu ondoren, lehen fasea gainditu duten hautagaitza bat baino gehiago dagoen ikastetxeetan, hautaketa-batzordeak merezimenduen balioespena gehituko dio izangai bakoitzari (IV. eranskina).

Merezimenduen balioespenaren gehieneko puntuazio orokorra ez da, inola ere, 30 puntutik gorakoa izango.

Balioespen hori egiteko epea 2025eko martxoaren 28an amaituko da.

6.– Ebaztea zer puntuazio lortzen duen hautagaitza bakoitzak eta proposatzea zer pertsona hautatzen den zuzendari-lanposturako.

Hautaketa-batzordeak puntuazioa aterako du; horretarako, batu egingo dira zenbat puntu lortu diren zuzendaritza-proiektuaren balioespenean eta zenbat merezimenduen ebaluazioan. Berdinketa badago, irizpide hauek aplikatuko dira, bata bestearen ostean:

- a) Puntuaziorik handiena zuzendaritza-proiektuan.
- b) Merezimendu-baremoko apartatu bakoitzean lortutako puntuaziorik handiena, agindu honen IV. eranskinean agertzen den hurrenkeraren arabera.

2025eko martxoaren 28an, batzordeetako idazkaritzek argitara emango dute behin-behinean zenbat puntu lortu duten izangaiek merezimendu-lehiaketaren fase bakoitzean. Informazio horren berri izangaiek hautagaitza aurkeztu duten ikastetxeetan emango da. Argitalpen honekin, egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena.

2025eko martxoaren 31tik apirilaren 2ra bitartean, izangaiek egoki irizten dieten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, esleitu zaien puntuazioari buruz, dagokien ikastetxeko idazkaritzetan; horretarako, idazki bat idatzi, eta hautaketa-batzordeari zuzendu beharko zaio.

Behin aztertuta zer erreklamazio jarri diren behin-behineko puntuazioen aurka, hautaketa-batzordeek ebaziko dituzte, eta argitara emango dituzte behin betiko puntuazioak, behin-behinekoekin egin duten modura. Argitalpen honekin, egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena. Argitalpen hori egiteko epea 2025eko apirilaren 9an amaituko da.

Izangai batek ikastetxe baterako baino gehiagorako lortzen badu puntuaziorik handiena, parte hartzeko eskabidean lehenengo jarri duen ikastetxerako proposatuko da.

2025eko apirilaren 9an bertan, batzordeburuak behin betiko puntuazioak helaraziko dizkio dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkarari, eta jakinaraziko dio, hala badagokio, nor proposatzen duen zuzendari-lanposturako.

Hautaketa-batzordeetako jarduketa guztiak 2025eko apirilaren 10a baino lehen egin eta amaitu beharko dira.

7.– Hezkuntzako lurralde-ordezkarien ebazpenak.

Hautaketa-batzordeek egindako proposamenak ikusita, eta haiekin bat etorritz, prozedura urratu ezean, hautatutako pertsonak adierazteko ebazpenak emango eta argitaratuko ditu dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek. Ebazpen horiek emateko eta argitaratzeko epea 2025eko apirilaren 16an amaituko da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ebazpenak Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko dira («Ikaskuntzak eta Ikastetxeak» lan-arloaren barruan – «Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen antolamendua. Gobernu-organoak» «Ikastetxe publikoak» «Zuzendariak hautatzeko prozesuaren deialdia» eta «Hezigunea» atarian. Argitalpen honekin, egintzat joko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena.

Ebazpen horien aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntzako sailburuordeari.

Izendatutakoak ez badu destinatorik zuzendari hautatua izan den ikastetxean, dagokion lurralde-ordezkariek 2025eko apirilaren 30a baino lehen eman beharko dio horren berri irakasleen arloan eskumena duen zuzendaritzari, eta hark ebazpen bat onartuko du ikastetxe horretan zerbitzu-eginkizunak emateko, izendapenak irauten duen artean.

8.– Atzera egitea eta uko egitea.

Atzera egitea da bertan behera uztea eskabidea eta hasitako prozedura. Izan ere, 39/2015 Legearen 94. artikulua araber, hautaketa-prozesuan parte hartzeari uko egin ahal izango zaio prozeduraren edozein unetan, betiere prozesua amaitzeko ebazpena eman aurretik. Atzera egiteko eskaera idatziz aurkeztuko zaio dagokion lurralde-ordezkarari.

Halaber, dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek hautatutako pertsonak deklaritzen dituzten ebazpenak eman eta argitaratu ondoren, esleitutako lanpostuari uko egiteko eskatu ahal izango dute honako kasu hauetan:

- a) Uko arrazoitua, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek onartua.
- b) Gerora sortutako ezintasun fisiko edo psikikoa.

9.– Hautatutako izangaien izendapena.

9.1.– Dagokion lurralde historikoko hezkuntzako lurralde-ordezkariek izendatuko du ikastetxeko zuzendari hautatutako pertsona, baldin eta zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentziei buruzko prestakuntza-programa espezifiko gaitu badu (programa hori Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenean dago jasota).

9.2.– Hautatutako izangaien kasuan, 2025eko ekainaren 2tik 6ra bitartean –egun biak barne–, Hezkuntza Saileko Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak ofizioz emango du ziurtagiri bat, egiaztatzen duena izangaiak gaitu dutela zuzendaritza-eginkizunean hasteko prestakuntza-programa espezifiko.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzaren behin-behineko ebazpen baten bidez jakinaraziko zaie horren berri interesdunei. Ebazpen horretan, honako hauek zehaztuko dira:

- a) Zer zuzendarik lortu duten PEFI_EFD prestakuntza-programa gainditu izanaren ziurtagiria.
- b) Hautatutako zer zuzendarik ez duten gainditu prestakuntza-programa espezifiko eta zergatik ez duten gainditu.

Aurreko ebazpenaren aurka, interesdunek erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariari. Erreklamazio horiek Hezigunea atariaren bidez egin beharko dira, eta aurkezteko epea 2025eko ekainaren 11n amaituko da, egun hori barne.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak, eta behin betiko ebazpena emango du. Ebazpen hori emateko epea 2025eko ekainaren 20an amaituko da.

Behin betiko ebazpenaren arabera prestakuntza-programa espezifiko gainditu ez duten zuzendarien kasuan, dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek egindako izendapenak ezohiko izaera izango du automatikoki.

9.3.– Izendapenak eta karguaz jabetzeak 2025eko uztailaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak. Zuzendari kargua betetzen ari zenak eta zuzendaritza-taldeko gainerako kideek aurreko egunean utziko dute beren kargua, ondore guztietarako.

9.4.– Agintaldia lau urtekoa izango da, ezohiko izendapenen kasuan izan ezik; kasu horretan, agintaldia urtebetekoa izango baita.

10. artikulua.– Ezohiko izendapena.

10.1.– Hautagaitzarik ez dagoenean, ikastetxe berriak direnean edo dagokion batzordeak pertsona bakar bat ere aukeratu ez duenean, dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek, Eskola Kontseiluari entzun eta Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena aztertu ondoren, irakasle funtzionario bat izendatuko du zuzendari, urtebeterako, ezohiko izaeraz. Ebazpen horiek emateko eta argitaratzeko epea 2025eko maiatzaren 5ean amaituko da.

10.2.– Pertsona horrek ez badu destinatorik zuzendari izendatu den ikastetxean, horren berri emango zaio irakasleen arloan eskumena duen zuzendaritzari, 2025eko maiatzaren 9a baino lehen, eta hark onartuko du ikastetxe horretan zerbitzu-eginkizunak emateko ebazpena, izendapenak irauten duen artean.

10.3.– Zuzendariak PEFI_EFD prestakuntza-programa espezifiko egin eta gainditu beharko dute, izendapenaren lehenengo urtea amaitu baino lehen. Jarduketa-planean, lidergoarekin lotutako helburu bat sartu beharko da gutxienez, 2025-2026 ikasturteari buruzkoa, eta helburu hori urteko memorian balioetsiko da.

11.– Zuzendaritza-taldeko gainerako kideen izendapena eta kargu-uztea.

11.1.– Agindu honetan aurreikusitako zuzendari-izendapenetan, ikastetxeko zuzendari izendatu den edo izendatuko den pertsonak dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritari jakinaraziko dio nor proposatzen dituen zuzendaritza-taldeko gainerako kideak izendatzeko. Kide horiek ikastetxeko irakasleak izango dira, eta, haien artean, ahal dela, emakumeen eta gizonen ordezkaritza haztatua edo, halakorik ezean, orekatua izango da. Proposamen hori egiteko epea 2025eko maiatzaren 9an amaituko da.

11.2.– Proposamen hori bat etorri beharko da, hala badagokio, prozeduraren hasieran aurkeztutako zuzendaritza-proiektuarekin, baldin eta ezohiko inguruabarrak ez badago. Azken kasu horretan, inguruabarrak dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek balioetsiko ditu, eta, hala badagokio, baietsiko.

11.3.– Dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako lurralde-ordezkariek izendatuko ditu zuzendaritza-taldeko gainerako kideak, proposatzen dien zuzendariaren agintaldi-epealdi bererako. Izendapen hori 2025eko maiatzaren 30a baino lehen egingo da.

11.4.– Zuzendariak dagozkion proposamenak egiten ez baditu, edo proposatutako pertsonak ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek izendatuko ditu pertsonarik egokienak, ikastetxeko zuzendaritzaren eta Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenak jaso ondoren.

11.5.– Agindu honen lehen xedapen gehigarrian jasotako salbuespenezko egoeretan, dagokion lurralde historikoko hezkuntza-ordezkariek izendatuko ditu irakasleak, behin betiko destinorik ez dutenak, ikastetxeko zuzendari ez den zuzendaritza-taldeko kide izan daitezen, baldin eta proposamen horren baliozkotze positiboa badu. Kasu horietan, irakasle-arloan eskumena duen zuzendaritzak onartuko du dagokion ebazpena, ikastetxe horretan zerbitzu-eginkizun bat emateko. Ezohiko zuzendaritzen kasuan, baliozkotzea 2025eko maiatzaren 9tik aurrera egingo da.

II. ERANSKINA

ZUZENDARIAK HAUTATZEKO PROZESUAN ONARTUA IZATEKO ESKABIDEA

NAN:

ABIZENAK:

IZENA:

Kidego honetako funtzionarioa:

Destinoa ikastetxe honetan du:

Otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera, zuzendarien hautaketa-prozesuan onartua izatea eskatzen du. Hezkuntzako sailburuaren 2024ko abenduaren 2ko Aginduaren bidez arautzen da prozesu hori, agindu horrek iragartzen baitu Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa, hain zuzen ere 2025eko ekainaren 30ean kargua hutsik geratuko den ikastetxeetarako.

2024ko abenduaren 17a, asteartea

Eskabidea zer ikastetxetarako aurkezten den (lehentasun-hurrenkeraren arabera):

Lehentasun-hurrenkera	Kodea	Ikastetxea	Herria	Lurralde Historikoa	Zuzendaritza-taldeko kideak	Izen-abizenak	NAN	Lan-harremana ¹	Behin betiko destinoa ikastetxean ²
1.a		Ikasketaburutza			Ikasketaburutza				
					Idazkaritza				
2.a		Ikasketaburutza			Ikasketaburutza				
					Idazkaritza				
3.a		Ikasketaburutza			Ikasketaburutza				
					Idazkaritza				

.....(e)n, 2025eko urtarrilaren..... (e)(a)n

Sinadura

JAUNA/ANDREAKO HEZKUNTZAKO LURRALDE ORDEZKARIA

¹ 1- Karrerako funtzionarioa; 2- Bitarteko funtzionarioa.

² Bai / Ez/ Ez dagokio (bitarteko funtzionarioen kasuan)

Alegatutako merezimenduak.

1.– Merezimendu profesionalak balioestea:

1.1.– Zuzendaritza-karguak betetzea:

1.1.1.– Ikastetxe publikoetan zuzendari-kargua betetzeagatik:

- a) Zuzendu nahi den ikastetxean izandako esperientziagatik
- b) Beste ikastetxe batzuetan izandakoagatik

.....
.....
.....

1.1.2.– Ikastetxe publikoetan zuzendaritzako bestelako karguak betetzeagatik:

- a) Zuzendu nahi den ikastetxean izandako esperientziagatik
- b) Beste ikastetxe batzuetan izandakoagatik

.....
.....
.....

1.1.3.– Zuzendari-lanpostua betetzea irakasleei laguntzeko zerbitzuetan eta hezkuntza-administrazioek ezarritako antzeko erakundeetan.

.....
.....
.....

1.1.4.– Ikastetxe publikoetan zuzendari-kargua betetzeagatik agintaldi bat edo gehiagotan ebaluazio positiboarekin:

.....
.....
.....

1.1.5.– Ikastetxe publikoetan zuzendaritzako bestelako karguak betetzeagatik agintaldi bat edo gehiagotan ebaluazio positiboarekin:

.....
.....
.....

1.2.– Jarduera profesionala:

1.2.1.– Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek emandako zuzendaritza-eginkizuna betetzeari buruzko prestakuntza-programa bat gainditzea, estatuko lurralde osorako balio duena.

.....
.....
.....

1.2.2.– Katedradunen kidegoren batekoa izatea.

.....
.....
.....

1.2.3.– Irakaskuntzan esperientzia izatea zuzendu nahi den ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetakoren batean.

.....
.....
.....

1.2.4.– Zuzendu nahi den ikastetxean esperientzia izatea.

.....
.....
.....

1.2.5.– Hezkuntza Administrazioan beste lanpostu batzuk betetzea.

.....
.....
.....

1.2.6.– Zikloaren koordinazio-kargua betetzea eta didaktika-, orientazio- edo lanbide-arloetako departamentuen burutzan aritzea.

.....
.....
.....

1.2.7.– Ikasturte hasierako ebazpenean agertzen diren arduradunen zereginak betetzea.

.....
.....
.....

1.2.8.– Eskola Kontseiluan parte hartzea (irakasleen ordezkari gisa)

.....
.....
.....

2.– Merezimendu akademikoak balioestea:

2.1.– Sartzeko egiaztatutakoaz bestelako unibertsitate-tituluengatik:

- Doktoretza
- Unibertsitate-master ofiziala
- Lizentzia eta baliokideak
- Diploma eta baliokideak

.....
.....
.....

2.2.– Bestelako tituluak:

- Lanbide Heziketako goi-mailako gradua.
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako gradua.
- Kirol-irakaskuntzen goi-mailako gradua.
- Musikako eta dantzako profesionalak.

.....

.....

.....

2.3.– Irakaskuntzako hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzeagatik:

.....

.....

.....

2.4.- Hizkuntzen Europako erreferentzia esparru bateratuan definitutako mailako ziurtagiri bakoitzeko (euskara eta gaztelania ez diren bestelako hizkuntzetan). Euskararen kasuan, C2 ziurtagiria hartuko da kontuan.

.....

.....

.....

2.5.- Argitalpenak:

- ISBN duten testuliburuak
- ISBN duten beste liburu batzuk
- ISBN duten artikulak
- ISSN duten beste argitalpen batzuk

.....

.....

.....

2.6. 2.6.– Sariak: autonomia-erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa zientifiko, literario edo artistikoak.

.....

.....

.....

3.– Prestakuntza-merezimenduen balioespena:

3.1.– Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko prestakuntza espezifikoa.

.....

.....

.....

3.2.– Praktiketako ikasleen eta irakasleen tutoretza.

.....

.....

.....

3.3.– Prestakuntza-jardueren koordinazioaren, zuzendaritzaren eta tutoretzaren arduraduna izatea, eta prestakuntza-jardueren txostengilea.

.....
.....
.....

3.4.– Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan edo Europako programetan parte hartzea.

.....
.....
.....

3.5.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzea (ikastaroak, lantaldeak, mintegiak, jardunaldiak eta abar)

.....
.....
.....

III. ERANSKINA

ZUZENDARITZA-PROIEKTUA

ZUZENDARITZA-PROIEKTUA		
1.– Proiektuaren ezaugarriak. Proiektuaren gehieneko hedadura: 25 orrialde (azala, aurkibidea eta arau- eta bibliografia-erreferentziak kenduta), DIN-A4, alde bakarrean idatziak, Arial 11 letra konprimatu gabe, 1,5eko edo gehiagoko lerroartea. Ezaugarri horiek ez betetzeak 10 puntuko zigorra ekarriko du izangaiak fase honetan lortutako azken balioespenean. Zuzendaritza-proiektuaren edukia ez da balioetsiko 26. orrialdetik aurrera.		
2.– Proiektua ahoz aurkeztea hautaketa-batzordeari: hautagaitzek beren zuzendaritza-proiektua azalduko diote hautaketa-batzordeari, horretarako deitutako bilkura batean. Guztira 10 punturekin balioetsiko da azalduko edukiaren kalitatea eta originaltasuna, bai eta izangaiak azalpena menderatzea eta jarotasunez jardutea ere.		
3.– Proiektuaren edukia eta haren puntuazioa (gehienez 60 puntu).		
Proiektuaren atalak	Gehieneko puntuazioa	Balioespen-irizpideak eta horien haztapena.
1. Zuzendaritza-proiektuaren justifikazioa	10	1.1.– Proiektuaren justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza-taldearen identifikazioa. Sustatu nahi diren lidergo-balioak eta -estiloa. (puntu bat)
		1.2.– Ikastetxeak zuzendaritza-proiektuan ezarriko dituen lehentasunak, zuzendaritza-eginkizunaren eskumen-esparruan oinarrituta eta kontuan hartuta emakumeen eta gizonen berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko edukiak, bai eta hizkuntza-normalizazioaren arlokoak ere. (7 puntu) <u>Gaitasun-esparruaren ideia-gakoak:</u> – Plangintza estrategikoa gidatzea, garatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea, aintzat hartuta ikastetxearen kultura eta ingurunea. – Eraldaketarako erakunde bat ezartzeko urratsak. – Gidaritza pedagogikoa: irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen kalitatea eta ebaluazioa bideratzea. – Gidaritza partekatua sustatzea. – Inklusioan, ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako hezkuntza-gidaritza garatzea, ikasle guztien arrakasta bermatzeko. – Eredugarri izatea, printzipio etikoen arabera jarduketan. – Ikastetxea bizikidetzan positiboan oinarrituta gidatzea. – Garapen pertsonal, sozial eta profesionalaren kultura sustatzea berrikuntzaren bidez elkarrekin ikasten duten komunitateko kideen artean. – Parte-hartze demokratikoa bultzatzea eta ezartzea. – Beste ikastetxe batzuekin, gizarte-ingurunearekin eta administrazioarekin lankidetzan aritzea. – Ebaluazioaren kultura sustatzea.
		1.3.– Zuzendaritza-proiektua egiteko prozesuaren eta haren egituraren deskribapena. (2 puntu)
Proiektuaren atalak	Gehieneko puntuazioa	Balioespen-irizpideak eta haien haztapena

2. Ikastetxearen analisi diagnostikoa	10	<p>2.1.– Ikastetxearen barne-azterketa: zuzendaritza-eginkizunaren eskumen-esparruan oinarritutako autoebaluazioa. Hezkuntza-komunitateko kideen iritzia. Ikastetxeko gainerako dokumentuak/planak/proiektuak aztertzea. Ikastetxearen barne-analisiaren ondoriozko indarguneak eta ahuleziak identifikatzea. (3 puntu)</p> <p>2.2.– Kanpo-analisia: kanpo-faktoreen analisia eta kanpo-eragileen iritzia. Ikastetxearen kanpo-analisiaren ondoriozko mehatxuak eta aukerak identifikatzea. (3 puntu)</p> <p>2.3.– Ikastetxearen indarguneak eta hobetzeko proposamenen identifikazioa, barne- eta kanpo-analisiaren ondoren. (4 puntu)</p>
3. Helburuak zehaztea	10	<p>3.1.– Hezkuntza Sailaren hobekuntza-proposamenen eta ildo estrategikoen arteko lotura. (2 puntu)</p> <p>3.2.– Hobetzeko proposamenen eta zuzendaritza-eginkizunaren eskumen-esparruaren arteko lotura. (3 puntu)</p> <p>3.3.– Hobekuntza-proposamenetatik eratorritako helburuak. Proposatutako helburuen pertinentzia eta bideragarritasuna. (3 puntu)</p> <p>3.4.– Agintaldirako helburuak lehenestea. (2 puntu)</p>
4. Jardun-ildoan zehaztapena	10	<p>4.1.– Helburu bakoitzaren ekintza zehatzen plangintza. (5 puntu)</p> <p>4.2.– Jarraipen-adierazleen definizioa. (4 puntu)</p> <p>4.3.– Jardun-ildoan denboralizazioa. (1 puntu)</p>
5. Zuzendaritza-proiektuaren komunikazioa, indarrean dagoen bitartean	5	<p>5.1.– Zuzendaritza-proiektuaren bilakaeraren berri emateko komunikazio-prozesuaren diseinua, proiektua indarrean dagoen urte bakoitzerako (5 puntu)</p>
6 Proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza	15	<p>6.1.– Adierazleak definitzea, helburuak lortu diren jakiteko (5 puntu)</p> <p>6.2.– Aginte Taula bat egitea agintaldiak dirauen artean. Helburuen lorpen-adierazleak definitzea, zuzendaritza-eginkizunaren esparru-gaitasunetik eta agintaldiko urteetako denboralizaziotik abiatuta. (10 puntu)</p>

IV. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOA

1. Merezimendu profesionalen balioespena. (gehienez 10 puntu)		
1.1.– Zuzendaritza-karguak betetzea		Gehienez ere, 5 puntu
Merezimendua	Puntuazioa	Justifikazioa
1.1.1.– Ikastetxe publikoetan zuzendari-kargua betetzeagatik: a) Zuzendu nahi den ikastetxean izandako esperientziagatik b) Beste ikastetxe batzuetan izandakoagatik	a) 0,75 puntu ikasturte oso bakoitzeko b) 0,50 puntu ikasturte oso bakoitzeko	Izendapenaren egiaztagiraren fotokopia konpultsatua, dagokion Hezkuntza Administraziooko organo eskudunak emana. Honako datu hauek jasoko ditu: kargua hartu eta utzi zuen data edo, hala bada, karguan jarraitzen duela. Ez da beharrezkoa izango Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan honako zuzendaritza-kargu hauek bete izana egiaztatzea: zuzendaria, zuzendariordea, ikasketaburua, idazkaria, zuzendariondokoa, gaueko ikasketaburua, ikasketaburuaren ondokoa, idazkari albokoa, idazkariordea.
1.1.2.– Ikastetxe publikoetan zuzendaritzako bestelako karguak betetzeagatik: a) Zuzendu nahi den ikastetxean izandako esperientziagatik b) Beste ikastetxe batzuetan izandakoagatik	a) 0,50 puntu ikasturte oso bakoitzeko b) 0,25 puntu ikasturte oso bakoitzeko	
1.1.3.– Zuzendari-lanpostua betetzea irakasleei laguntzeko zerbitzuetan eta hezkuntza-administrazioek ezarritako antzeko erakundeetan.	0,25 puntu ikasturte oso bakoitzeko	
1.1.4.– Ikastetxe publikoetan zuzendari-kargua betetzeagatik agintaldi bat edo gehiagotan ebaluazio positiboarekin	4 puntu	
1.1.5.– Ikastetxe publikoetan zuzendaritzako bestelako karguak betetzeagatik agintaldi bat edo gehiagotan ebaluazio positiboarekin:	3 puntu	
Oharrak:		
– Ikastetxe publikotzat jotzen dira Hezkuntza Administrazioek sortzen eta mantentzen dituzten ikastetxeen sarea osatzen dutenak.		
– Oraingo ikasturtea ikasturte osoei dagozkien merezimenduen zenbaketan sartzen da.		

1.2. Ibilbide profesionala (Gehienez ere, 8 puntu)		
Merezimendua	Puntuazioa	Justifikazioa
1.2.1.– Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioak edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioek emandako zuzendaritza-eginkizuna betetzeari buruzko prestakuntza-programa bat gainditzea, estatuko lurralde osorako balio duena.	1,00 puntu	Dagokion ziurtagiria
1.2.2.– Katedradunen kidegoren batekoa izatea.	0,50 puntu	Izendapena
1.2.3.– Irakaskuntzan esperientzia izateagatik aukeratutako ikastetxeak eskaintzen dituen irakaskuntzetakoren batean:	0,10 puntu urte oso bakoitzeko	Zerbitzu-orria
1.2.4.– Aukeratutako ikastetxean izandako esperientziagatik:	0,20 puntu urte oso bakoitzeko	Ez da beharrezkoa izango Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak egiaztatzea.
1.2.5.– Hezkuntza Administrazioan beste lanpostu batzuk betetzea.	0,10 puntu urte oso bakoitzeko	Ziurtagiria edo izendapena
1.2.6.– Zikloaren koordinazio-kargua betetzeagatik eta didaktika-, orientazio- edo lanbide-arloetako departamentuen burutzan aritzeagatik.	0,20 puntu ikasturte oso bakoitzeko	Dagokion ikastetxeko zuzendariak emandako ziurtagiria, eginkizun horiez jabetzeko eta uzteko datak jasotzen dituena.
1.2.7.– Ikasturte hasierako ebazpenean agertzen diren arduradunen zereginak betetzea.	0,10 puntu ikasturte oso bakoitzeko	
1.2.8.– Eskola Kontseiluan parte hartzea (irakasleen ordezkari gisa)	0,10 puntu urte oso bakoitzeko	Ikastetxeko idazkariaren ziurtagiria, kide anitzeko organo horretan kide hautatu gisa zenbat urtez parte hartu zuen adierazten duena.
<p>Oharra:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Zerbitzuak eman diren hezkuntza-administrazioiko organo eskudunak ziurtatu behar du zerbitzu-orria. Honako hauek jasoko ditu: zer egunetan jabetu zen lanpostuaz, zer egunetan utzi zuen eta zer kidego eta espezialitatetan aritu zen. Halakorik izan ezean, izendapenaren egiaztagiria edo horien fotokopia konpultsatuak. Honako hauek jasoko dituzte: zer egunetan jabetu zen lanpostuaz, zer egunetan utzi zuen, eta zer espezialitatetan aritu zen. – Ez dira ziurtatu behar Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailean emandako zerbitzuak. – Atzerrian emandako zerbitzuak egiaztatzeko, dagozkien herrialdeetako hezkuntza-administrazioek edo eskumen-organoei emandako ziurtagiriak erabiliko dira, eta honako datu hauek jaso behar dituzte: zerbitzu-aldiaren iraupena, ikastetxea publikoa edo pribatua den, eta zer hezkuntza-mailatan eta zer irakasgai irakatsi den. Ziurtagiri horiek zinpeko itzulpen eta guzti aurkeztuko dira. – 1.2.5 apartatuan, irakasle-aholkulari teknikoan, hezkuntzako ikuskarien, zerbitziburuen eta izaera teknikoko beste lanpostu batzuen lanpostuak sartzen dira, besteak beste. – Oraingo ikasturtea ikasturte osoei dagozkien merezimenduen zenbaketan sartzen da. 		

2. Merezimendu akademikoen balioespena (gehienez ere, 10 puntu)		
Merezimendua	Puntuazioa	Justifikazioa
2.1. – Sartzeko egiaztatutakoaz bestelako unibertsitate-tituluengatik: – Doktoretza – Unibertsitate-master ofiziala – Lizentzia eta baliokideak – Diploma eta baliokideak	1 puntu titulu bakoitzeko	
2.2.– Bestelako tituluak: – Lanbide Heziketako goi-mailako gradua. – Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako gradua. – Kirol-irakaskuntzen goi-mailako gradua. – Musikako eta dantzako profesionalak.	0,50 puntu titulu bakoitzeko	Tituluaren kopia edo tituluaren emate-eskubidea ordaindu izanaren ziurtagiria. Lehen zikloei dagozkien ikasketen kasuan, ikasketa horiek gainditu izanaren ziurtagiri akademikoak.
2.3.– Irakaskuntzako hizkuntza-eskakizuna edo baliokidea egiaztatzeagatik:	1. HE: 1,5 puntu 2. HE: 5,5 puntu	Ez da beharrezkoa izango egiaztatzea. Hezkuntza Sailak egiaztatuko du.
2.4.– Hizkuntzen Europako erreferentzia esparru bateratuan definitutako mailako ziurtagiri bakoitzeko (euskara eta gaztelania ez den bestelako hizkuntzetan): Euskararen kasuan, C2 ziurtagiria hartuko da kontuan.	B1: 0,25 puntu B2: 0.5 puntu. C1: 0.75 puntu. C2: 1 puntu.	Otsailaren 3ko 22/2009 Dekretuaren eranskinean ezarritako titulu edo ziurtagiriren baten fotokopia konpultsatua, abenduaren 5eko 262/2017 Dekretuak emandako idazketan.
2.5.– Argitalpenak: – ISBN duten testuliburuak – ISBN duten beste liburu batzuk – ISBN duten artikulak – ISSN duten beste argitalpen batzuk	0,50 puntu bakoitzeko 0,40 puntu bakoitzeko 0,15 puntu bakoitzeko 0,15 puntu bakoitzeko	Argitalpenaren alea, edozein euskarritan
2.6.– Sariak: autonomia-erkidegoko, estatuko edo nazioarteko lehiaketa zientifiko literario edo artistikoak.	0,20 puntu sari bakoitzeko	Saria eman izanaren egiaztatzea
Oharra: 2.4 apartatuan, administrazio-kudeaketarekin edo eskola-antolaketarekin zerikusi zuzena duten argitalpen didaktikoak edo zientifikoak baino ez dira balioetsiko. Adierazitako puntuazioak egile bakar baten argitalpenei dagozkie. Egile bat baino gehiagorena bada, zati proportzionala aplikatuko da.		

3. Prestakuntza-merezimenduen balioespena (gehienez 10 puntu)		
Merezimendua	Puntuazioa	Justifikazioa
3.1.– Zuzendaritza-eginkizuna betetzeko prestakuntza espezifikoa	0,10 puntu kreditu bakoitzeko	Dagozkion ziurtagiriak
3.2.– Praktiketako ikasleen eta irakasleen tutoretza	0,50 puntu ikasturte bakoitzeko	
3.3.– Prestakuntza-jardueren koordinazioaren, zuzendaritzaren eta tutoretzaren arduraduna, eta prestakuntza-jardueretan txostengilea	0,10 puntu kreditu bakoitzeko	
3.4.– Berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan edo Europako programetan parte hartzea	0,10 puntu kreditu bakoitzeko	
3.5.– Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du (ikastaroak, lantaldeak, mintegiak, jardunaldiak eta abar)	0,05 puntu kreditu bakoitzeko	
<p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kreditu bat 10 orduko prestakuntzari dagokio. – 3.1 apartatuan, zuzendaritza-eginkizuna egiaztatzeko prestakuntza-ikastaroko kredituak balioetsi ahal izango dira, zuzendaritza-lana egiteko akreditazioa edo gaikuntza baloratzeko aldez aurretik balio izan badu ere. – 3.2 apartatua masterraren unibertsitate-titulu ofizialaren praktiken tutorizazioari dagokio, hezkuntza-sistemako zenbait irakaskuntzetan eskolak emateko beharrezkoa den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzeko, bai eta hala eskatzen duten graduako unibertsitate-tituluak lortzeko praktiken tutorizazioagatik ere: – Prestakuntza-jarduerak, hala badagokio, Estatuko edo autonomia-erkidegoko hezkuntza-administrazioaren aitortpena edo homologazioa izan beharko dute. 		

V. ERANSKINA

ESKABIDE-EREDUA, PEFI_EFD PRESTAKUNTZA-PROGRAMAKO JARDUERA JAKIN
BATZUK EGITETIK ETA EBALUATZETIK SALBUESTEKO

Zuzendaritza-eginkizuna garatzeko gaitasunei buruzko prestakuntza.

DATU PERTSONALAK

NAN/AIZ		Izena	
1. abizena		2. abizena	
Helbide elektronikoa			
Posta-helbidea			
Posta-kodea		Herria	
Udalerria		Telefono mugikorra	

HAU AZALTZEN DUT:

LOEren 135. artikulua araberan, ikastetxe bateko zuzendaritzan jarduteko hautaketa-prozedura gainditu dutenek zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentzietarako buruzko prestakuntza-programa bat gainditu beharko dute, izendatu aurretik.

LOEren 136. artikulua araberan, zuzendaritza-eginkizuna betetzeko konpetentzietarako buruzko prestakuntza-programa bat gainditu duena zuzendari izendatuko du administrazioak.

Era berean, legearen arabera, salbuespenak ezarriko dira, hautagaitza aurkeztu aurretik horrelako prestakuntza-ikastaroak egin dituzten izangaientzat edo zuzendaritza-eginkizunean esperientzia izan eta eginkizun horretan ebaluazio positiboa egiaztatzen dutenentzat.

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariaren 2024ko ekainaren 6ko Ebazpenaren 7. artikuluan xedatutakoari dagokionez (ebazpen horren bidez, prestakuntza-ikastaro bat iragartzen da, zuzendaritza-eginkizuna betetzeko prestakuntza-programa espezifikoari buruz, Hezkuntzari buruzko otsailaren 28ko 29/2023 Dekretuan ezarritako zuzendaritza-eginkizunean jarduten hasteko), honako hau

2024ko abenduaren 17a, asteartea

ADIERAZTEN DUT:

	1.– Ikastetxeen zuzendaritzari eta kudeaketari buruzko master edo graduondoko titulu ofizial bat lortu dut. Eskabide honekin batera aurkezten dut titulua.
--	--

DATU-BABESA

Berariaz ematen dut baimena emandako datuak fitxategi batean bildu eta tratatuak izan daitezen, ikastetxeetako gobernu-organoen hautaketa-, izendapen- eta kargu-uzteak kudeatzeko. Fitxategi horren titularra ikaskuntzaren eta hezkuntza-berrikuntzaren alorrean eskumena duen zuzendaritza da (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Badakit edozein unetan erabil ditzakedala legeriak aitortzen dizkidan eskubideak, bereziki datuak irispidean izateko, zuzentzeko, ezerezteko eta eramateko eskubideak, bai eta datuen tratamendua mugatzeko nahiz tratamenduaren aurka egiteko eskubideak ere. Horretarako, idazki bat helarazi behar diot Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari.

2025ekoaren(a)

[sinadura]

VI. ERANSKINA

HAUTAKETA-PROZESURAKO DEIALDIA EGINDA DAGOEN IKASTETXEEN ZERRENDA

Arabako ikastetxeak:

28 ikastetxe

Zenbakia	Kodea	Ikastetxea	Udalerrria
1	010041	CEIP Ramiro De Maeztu HLHI	Oyón-Oion
2	010049	CEIP Gobeia HLHI	Gaubea
3	010052	CEIP Adurza Ikastola HLHI	Vitoria-Gasteiz
4	010053	CEIP Aranzabela Ikastola HLHI	Vitoria-Gasteiz
5	010105	CEIP Sta. María De Vitoria HLHI	Vitoria-Gasteiz
6	010123	CEPA Paulo Freire HHI	Vitoria-Gasteiz
7	010140	CEIP Odón De Apraiz Ikastola HLHI	Vitoria-Gasteiz
8	010142	CEIP Pedro Ignacio Barrutia Ikastola HLHI	Vitoria-Gasteiz
9	010156	CEIP Virgen De Oro HLHI	Zuia
10	010316	CEIP Garazi HLHI	Legutio
11	010327	CEIP Mendiko Eskola HLHI	Amurrio
12	010339	CEIP Luis Elejalde-Rogelia De Álvaro HLHI	Vitoria-Gasteiz
13	010340	CEIP Divino Maestro-María De Maeztu HLHI	Vitoria-Gasteiz
14	010342	CEIP Ángel Ganivet-Santa Lucía HLHI	Vitoria-Gasteiz
15	010450	CEIP Ibaiondo HLHI	Vitoria-Gasteiz
16	010605	CEIP Errekabarri HLHI	Vitoria-Gasteiz
17	010617	CEIP Aldaialde HLHI	Vitoria-Gasteiz
18	010723	CEIP Barrundia HLHI	Ozaeta
19	010333	CEIP Judimendi HLHH	Vitoria-Gasteiz
20	010133	IES Federico Baraibar BHI	Vitoria-Gasteiz
21	010172	CEIP Lantziego HLHI	Lantziego
22	010103	CEIP San Martin HLHI	Vitoria-Gasteiz
23	010042	CEIP Unamunzaga HLHI	Ribabellosa
24	010332	CEIP Antonio López De Guereñu-José Mardones HLHI	Vitoria-Gasteiz
25	010048	CEIP Izarra HLHI	Izarra
26	010080	CEIP Padre Orbiso HLHI	Vitoria-Gasteiz
27	010288	EOI Vitoria-Gasteiz HEO	Vitoria-Gasteiz
28	010351	IES Audio BHI	Laudio

Bizkaiko ikastetxeak:

64 ikastetxe

Zenbakia	Kodea	Ikastetxea	Udalerrria
1	014002	CEIP Traña Matiena HLHI	Abadiño
2	014275	CEPA Galdakao HHI	Galdakao
3	014920	CEIP Amorebieta-Larrea HLHI	Zornotza
4	014384	CEIP Plentzia HLHI	Plentzia
5	014083	CEPA Basauri Denon Eskola HHI	Basauri
6	014111	CEIP Cervantes HLHI	Bilbo
7	014105	CEIP Artatse HLHI	Bilbo
8	014126	CEIP Luis Briñas-Santutxu HLHI	Bilbo
9	014153	CEIP Uribarri HLHI	Bilbo
10	014161	CEIP Zurbaranbarri HLHI	Bilbo
11	014918	CEPA Iturribide HHI	Bilbo
12	014922	CEIP Basozelai-Gaztelu HLHI	Basauri
13	015075	IES Luis Briñas-Santutxu BHI	Bilbo
14	015078	IES Zorroza BHI	Bilbo
15	015733	CEIP Otxarkoaga HLHI	Bilbo
16	014051	CEIP Munoa HLHI	Barakaldo
17	014053	CEIP Ntra. Sra. Del Pilar HLHI	Barakaldo
18	014057	CEIP Zuazo HLHI	Barakaldo
19	014232	CEIP Kontxa HLHI	Karrantza
20	014392	CEIP Maestro Zubeldia HLHI	Portugalete
21	014397	CEPA Portugalete HHI	Portugalete
22	014401	CEIP La Escontrilla HLHI	Valle de Trápaga-Trapagaran
23	014438	CEPA Sestao HHI	Sestao
24	014539	CEIP Muskizko Ikastola HLHI	Muskiz
25	014986	CEPA Zalla HHI	Zalla
26	015096	CEIP Bagatza HLHI	Barakaldo
27	015178	IES Burdinibarra BHI	Trapagaran
28	015639	EOI Zalla HEO	Zalla
29	014938	CEIP Maiztegi HLHI	Iurreta
30	014923	CEIP San Francisco HLHI	Bermeo
31	014456	IES Arratia BHI	Igorre
32	014407	CEIP Lezama HLHI	Lezama
33	014923	CEIP Bermeo-San Francisco HLHI	Bermeo
34	014928	IES Ballonti BHI	Portugalete
35	014400	CEIP La Arboleda HLHI	Gallarta
36	014049	CEIP Gurutzeta HLHI	Barakaldo
37	015683	CPI Antonio Trueba IPI	Portugalete
38	015004	CEPA Bilbo HHI	Bilbo
39	014248	CEPA Durango HHI	Durango
40	014361	CEIP Mundaka HLHI	Mundaka
41	014372	CEIP Otxandio HLHI	Otxandio

2024ko abenduaren 17a, asteartea

Zenbakia	Kodea	Ikastetxea	Udalerrria
42	014925	CEIP Lekeitio HLHI	Lekeitio
43	015307	IES Fray Juan de Zumarraga BHI	Durango
44	015627	IES Urritxe BHI	Zornotza
45	014235	CEIP Arratia HLHI	Artea
46	014188	CEIP Lamiako HLHI	Leioa
47	014529	CEIP Gobela Ikastola HLHI	Getxo
48	014192	IES San Adrian BHI	Bilbo
49	014379	CEIP Urduña HLHI	Urduña
50	014924	CEIP San Inazio/San Ignacio HLHI	Bilbo
51	014129	CEIP Arangoiti HLHI	Bilbo
52	014119	CEIP Gabriel Aresti HLHI	Bilbo
53	014131	CEIP Maestro Garcia Rivero HLHI	Bilbo
54	014055	CEIP Arrontegi Eskola HLHI	Barakaldo
55	014413	CEIP Las Viñas HLHI	Santurtzi
56	014417	CEIP Serantes HLHI	Santurtzi
575	014958	CEPA Valle De Trápaga HHI	Valle de Trápaga-Trapagaran
58	014402	CEIP San Gabriel HLHI	Valle de Trápaga-Trapagaran
59	014065	IES Cruces BHI	Barakaldo
60	014396	CEIP Virgen De La Guía HLHI	Portugalete
61	014059	CEPA Barakaldo HHI	Barakaldo
62	014440	IES Ángela Figuera BHI	Sestao
63	014441	IES Saturnino De La Peña BHI	Sestao
64	015094	IES Sopela BHI	Sopela

Gipuzkoako ikastetxeak:

35 ikastetxe

Zenbakia	Kodea	Ikastetxea	Udalerrria
1	012041	CEIP Pedro M. Otaño HLHI	Zizurkil
2	012071	IES Talaia BHI	Hondarribia
3	012102	CEIP Elatzeta HLHI	Irun
4	012186	CEIP Katalin Erauso HLHI	Donostia
5	012265	CEIP San Martin Agirre HLHI	Bergara
6	012273	CEIP Angiozar HLHI	Bergara
7	012334	CEIP Langile Ikastola HLHI	Hernani
8	012368	CEIP Jakintza Ikastola HLHI	Donostia
9	012734	CEPA Lasarte HHI	Lasarte-Oria
10	012760	CEPA Urola Kosta HHI	Zarautz
11	012951	IES Aralar BHI	Alegia
12	012971	CEIP Luzaro HLHI	Deba
13	012980	IES Orixe BHI	Tolosa
14	012981	IES Ipintza BHI	Bergara
15	012985	IES Azkoitia BHI	Azkoitia

2024ko abenduaren 17a, asteartea

Zenbakia	Kodea	Ikastetxea	Udalerria
16	013025	IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI	Donostia
17	012110	CEIP Toki-alaia HLHI	Irun
18	012972	CEIP Zumaia HLHI	Zumaia
19	013012	IES Hernani BHI	Hernani
20	012681	CPM Francisco Escudero MKP	Donostia
21	013527	CEIP Ezkio-Itsaso Herri Eskola HLHI	Ezkio-Itsaso
22	012366	CEIP Ikas-Bide Ikastola HLHI	Donostia
23	012389	CEIP Mendaro Ikastola HLHI	Mendaro
24	012970	CEIP Plaentxi HLHI	Soraluze-Placencia de las Armas
25	012115	CEIP Domingo Agirre HLHI	Legazpi
26	013447	EOI Ordizia HEO	Ordizia
27	012287	CEIP Lardizabal HLHI	Zaldibia
28	013002	CEIP Belaskoenea HLHI	Irun
29	012073	CEIP Iturzaeta HLHI	Getaria
30	013013	IES Pío Baroja BHI	Irun
31	012224	IES Altza BHI	Donostia
32	012185	CEIP Mendiola HLHI	Donostia
33	012133	CEIP Olaberriko Herri Eskola HLHI	Oaberria
34	012320	CEIP Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastola HLHI	Azpeitia
35	012137	IPI Juan Zaragueta CPI	Orio

VII. ERANSKINA
KLAUSTROAREN AKTA-EREDUA

Ikastetxea:

.....

Kode zk.:

.....

Herria:

.....

Nik,..... jaunak/andreak,

.....

..... ikastetxeko idazkaria naizen aldetik, honako hau

ZIURTATZEN DUT:

Klaustroak (e)koaren.....(e)(a)n egindako ezohiko bilkuran,

1.– Klaustroko bi ordezkariak eta haien ordezekoak aukeratu dira, hautaketa-batzordeko kide izango direnak, bokal gisa. Hau izan da bozketaren emaitza:

– Klaustroaren ordezkariak:

1.

2.

– Ordezkoak (botoren bat jaso duten guztien zerrenda, boto gehien jaso dituenetik gutxien jaso dituenera ordenatuta):

1.

2.

.....(e)n,

.....(e)ko.....aren.....(e)(a)n

Ikastetxeko zuzendaria Ikastetxeko idazkaria

(Ikastetxearen zigilua)

Stua.:

Fdo.:

VIII. ERANSKINA

ESKOLA KONTSEILUAREN AKTA EREDUA

Ikastetxea:

.....

Kode zk.:

.....

Herria:

.....

Nik,

..... jaunak /
andreak

.....

..... ikastetxeko idazkaria naizen aldetik, honako hau

ZIURTATZEN DUT:

Eskola Kontseiluak(e)koaren.....(e)(a)n egindako ezohiko bilkuran,

Eskola Kontseiluaren bi ordezkariak eta haien ordezkoak aukeratu dira, hautaketa-batzordeko kide izango direnak, bokal gisa. Hau izan da bozketaren emaitza:

– Eskola Kontseiluaren ordezkariak:

1.

2.

– Ordezkoak (botoren bat jaso duten guztien zerrenda, boto gehien jaso dituenetik gutxien jaso dituenera ordenatuta):

1.

2.

.....(e)n,(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendaria Ikastetxeko idazkaria

(Ikastetxearen zigilua)

Stua.:

Fdo.: